

2017ko uztailaren 19an ,UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 5

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19,30tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate andreak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: Nekane Arrizabalaga
ZINEGOTZIAK : M^a Jesus Arruabarrena
Asier Iburguren
Arkaitz Iruretagoiena
Igor Iturain
Sergio Cubero
Hodeiza Sallen
Kontxi Lazkano

Eñaut Guruzeaga, Aitor Arregi eta Jon Ander Azpiroz ez ziren bertaratu.

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2017ko ekainaren 21ean eginiko Udalbatzarraren akta ontzat emanda aho batez.

2.- 2016. urteko Aurrekontuen Likidazioaren berri eman eta kontu Orokorrak onartu.

Kontu Orokorrak urtean zehar egin diren aurrekontu eragiketa guztien berri ematen du: aurrekontuarenak, aurrekontu-kanpokoak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak.

Udal entitateak aurrekontuaren likidazioaz gain, Kontu Orokorra egitera behartuta dago eta ondoko hauek osatzen dute: Udalarenak eta Aia-Lantzen, S.A. sozietate publikoaren (bere kapital sozialean %50tik gorako partaidetza baitu). Eta ondoko dokumentu hauek izango ditu:

1.- Aurrez Alkate dekretuz onartutako Aurrekontuaren likidazioa.

- 2.- Egoera balantzea, ekitaldiaren itxiera egunean Ondarearen Osaera eta Egoera adierazten duena.
- 3.- Galdu-irabazien kontua, ekitaldiaren emaitzak azaltzen dituena, ekonomia eta ondarearen ikuspuntutik.
- 4.- Ekitaldiaren txosten bat, urteko finantzaketa taula eta zorraren egoerarekin.

Ekainaren 13an Kontu Orokorretarako Batzorde Bereziak erabaki zuen 2016ko Kontu Orokorrari oniritzia eman eta jendaurrean jartzea. Jendaurrean jarri (BOG ekainaren 19an) eta agerraldi epean ez da inolako iradokizunik edo oharpenik aurkeztu.

Bozkatu eta aldeko 6 boturekin (2 aurka, Sallen eta Lazkano), beraz, beharrezko gehiengoarekin, erabaki da:

“ 2016ko udal Kontu Orokorrak onartzea”

Kontrako botoaren arrazoia Sallenen esanetan da , pertsona batek K.O-en nulidatea eskatu izana.

Iturainek, harridura azaldu du, posizio horrekin, Batzorde Bereziak ez zutelako kontra bozkatu.

Idazkari-Kontuhartzaileak hitza hartu eta egun hartan gertatutakoaren berri eman du, azpimarratuz, K.O ikusteko eskatu zuenean Gazteategikoen aholkulariak ez zitzaizola ikuste hori ukatu, atzeratu baizik, espedienta zuen lankidea ikastaro batean zelako momentu horretan.

3.- Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 4 . zkia duen espedientea onartzea.

Sortu diren premi berriei aurre egiteko- saneamendu lanak eta herriko jaietako jarduera berriak- eta beharrezkoa izanik hainbat gastu berehala egitea, Alkateak proposatzen du Kreditu Gehigarrien 2. espedientea onartzea.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostenaren berri eman du. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren

19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin. Baita ere aldaketak betetzen dituela araudiak eskaturiko 2 eskakizunekin, gastoaren erregela eta defizitaren helburua.

Ez ordea egonkortasun finantzioarena. Ala eta guztiz ere, kontuan hartuta udal honek indarrean duela **plan ekonomiko finantzioa** egoera horrek sortuko lukeen obligazioa (plan e-f bat egitearena) beteta geratzen da.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, aldeko 6 boturekin – 2 abstentzio (Sallen eta Lazkano) - , beraz, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 4 zkia duen espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

	IZENA	
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	16.000,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.600,00
6	INBERTSIO ERREALAK	24.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		45.600,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
2 (GASTUAK)	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	(-)5.600,00
7 (SARRERAK)	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	40.000,00
GUZTIRA		45.600,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

4.- Eskari-galderak

Kontxi Lazkanok ,Ondometal ETA Ondoizabal enpresen arteko loturaz egin dituk azalpen batzuk.

Bilera, 19,50tan bukatu da, eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, Idazkariak hau ematen du, Aian 2017ko uztailaren 19an.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK